

Nola kudeatu migrazioa etxean anfitrioi ez bagara

EHUko Udako Ikastaroetan, *Aniztasun berrien harira* izeneko ikastaroan nortasunaz eta hizkuntzaz aritu ziren hizketan joan den astean. Jon Sarasuak, besteak beste, euskarak hizkuntza hegemonikoa izan gabe errealitate anitzean bizirautek izango al duen galdetu zuen.

ONINTZA IRURETA

XXI. MENDEAN, aniztasun berriaren gizartean zein espazio dagokio euskarari? Zein espazio Euskal Herriko bi erdara handiei? Eta etorkinen hizkuntzei? XXI. mendean euskarak hegemonikoa izan gabe bizirauteko aukerarik izango al du?

Jon Sarasuaren galderak dira. Berak gogoeta inpresionista egingo zuela aurreratu zuen hizketan hasi aurretik. Segidan koadro horren pintzelkada batzuk jaso ditugu bere hitzetan.

Euskarak estatua behar al du?

Hizkuntz hegemoniari lotuta hiru bide aipatuko ditut. Lehena: etsi dezagun euskarak bere lurraldea izango duenaren ideia horrekin eta lurralderik gabeko sare izaten asma dezagun, neurri batean behintzat. Sor dezagun beraz, euskal sare minoritarioa. Bigarrena: pentsa dezagun euskarak biziraun dezan lurralde hegemonia behar duela. Ez dezagun ideia hori baztertu eta etorkizunera-ko has gaitezen lurralde hegemoniaz eztabaidatzen. Hirugarrena: eman diezazkiogun lurralde kontzeptuari adiera metaforikoak, lurralde hegemonikoez hitz egin dezagun, hau da, pluralean mintza gaitezen. Sortu edo garatu ditzagun hegemonia guneak. Esate baterako, unibertsitateko fakultatea izan daiteke bat.

Onartzen dut hegemonia guneen sorrera planteatzea ihesbidea izan daitekeela batzuetan, erretzen gai-

tuen gaiari heltzen ez diogulako, alegia, lurraldearen behar-rrari. Hegemonia guneak nahikoa al lirateke euskarak bizirauteko? Ez dakit. Horregatik, hiru bideak osagarritzat ditut.

Diskurtso modernoek ez digute biderik ireki

Modernitatearen balore nagusiak josi ezinik dabilta. Askatasunak eta berdintasunak hartu dute elkar josteko ardura, haurridetasunak labain egin du eta identitatea falta da. Nortasunaren gramatikarik ez du sortu modernitateak. Eskema zahar horretatik saiatzen gara gauza berriak asmatzen, hizkuntz komunitateen ezagutza minimorik gabe. Ez sozialismoak, ez liberalismoak, ez digute balio hizkuntz dinamikez aritzeko. Eleaniztasun politika *korrektoei* kutsu bera darie, ez dute proposatzen hizkuntz nortasunerako biderik, ez da sakontzen sakondu behar den lekuraino.

Aniztasun berriaren
aurrean bi begiratu daude:
bizi kinkan dagoen
hizkuntzarena eta
hegemonia duten
hizkuntzena



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Badut arrangura gai horri lotuta. Euskal Herrian, azken hamarkadatan, eta bereziki azken hamarkadan, hizkuntz nortasunari buruz hitz egi-terakoan fundamentu falta dago. Fundamentu eskasa agertu dute hizkuntzaren alorrean dabilzan politikoei eta baita idazleek, behi sakratuek ere.

Minduaren bagajea aniztasun berrian

Gure egoera existentzialak baliabi-deak ematen dizkigu migratzailearen aurrean. Badugu begirada etikoa, ekologikoa, enpatia migratzaileareki-

Identitate posteuskaldunaren bila

Xabier Aierdi soziologoak mahai-inguruan bildu zituen Fermin Etxegoien, Juan Kruz Lakasta eta Luis Fernandez. Identitate posteuskaldunetaz aritu ziren hirurak. Hona mahai-inguruko printza batzuk, beraien hitzetan jarriak:

Fermin Etxegoien estetika ez-gustagarriaz

Posteuskaldunak euskara modu arautuan jaso du. Gero, euskaraz bizi da edo ez. Euskaraz ez bizitzea aukeratu dutenen artean bi multzo daude; batzuek diote euskara ez darabiltela erdaldunek gaztelania inposatu dutelako eta beste batzuek garbi adierazten dute beraiek, beren kabuz, aukeratu dutela erdaraz egitea. Nire ustez, euskaldun edo erdaldun bizi izatea aukera pertsonala da.

Euskararen estetika ez da gustagarria askorentzat, erdarak primeran funtzionatzen du. Utzi ditzagun alde batera "euskaraz egin" eta horrelako kanpainak, utzi "konpromisoa" moduko hitzak alde batera. Egin dezagun kontrakoa: euskara plazer estetikoa izan dadila, gustagarria.

Lortuko al dugu jendea euskaldun bihurtzea konturatu gabe?

Juan Kruz Lakastaren stripteasea

Kontraesanak, tabuak ukitzen edo ferekatzen saiatuko naiz. ✓ Ama euskaldunberria umeari euskaraz ari zaio. Galdetu diote ama horri nola moldatzen den euskaraz umearekin. Amak hala dio: "Ateratsen sait natural". Umeak ez ote du nahiago amak gaztelaniaz egitea? Eta nik ama hizkuntza gaztelania izanda ez ote nuke gaztelaniaz egin beharko nire haurrarekin?

✓ Nafarroan D eredua gora egiten ari da. Etorkinek ez dute izena ematen D ereduan eta horregatik, gero eta

haur gehiago matrikulatzen dituzte D ereduan, etorkinekin bat ez egiteko.

✓ Gure irratira [Euskalerrria Irratia] datozen haurrek euskañolez hitz egiten dute, haientzat erdara da hizkuntza bizia eta euskara zurruna eta inposatua. Nekez konponduko dugu hori. Nola esango dugu Tuteran D eredua baino ez dela ezarri behar?

✓ Irati Jimenezek *Berrian* idatzitakoaren harian, euskaldun zikina izan nahi dut: pornografiaz, ustelkeriaz... hitz egiteko. Baina seguru norbaiti Euskara Zikinaren Eguna okurrituko zaiola eta besteren bati Euskara Zikinaren Plan Estrategikoa.



Ezkerretik eskuinera, Xabier Aierdi moderatzailea, Juan Kruz Lakasta, Fermin Etxegoien eta Luis Fernandez.

✓ Zaragozako lagun ezkertiar majo batzuek esaten didate ez dutela ulertzen euskaldun izateko tema hori, beraiek munduko herritar sentitzen omen dira. Bada ni, munduko herritar euskalduna naiz.

Luis Fernandez errebelazioaren zain

Euskalduna izatea aukera kontzientea da ala zerutik datorren argia? Euskaldunak

euskaraz bizi nahi izateko neke hori jakinaren gainean hartzen du bere gain ala errebelazioa da? Nik 17-18 urterekin, euskaldun zaharra izanda, aukera hori egin nuen, neke hori hartu nuen. Orduan horri militantzia deitzen zitzaion, orain modan ez dagoen terminoa. Militantzia kulturala zegoen; "pose txuloa" ematen zuen euskarak. Militantzia politikoa ere bai; erresistentziak, debekatutakoaren kontra egiteak xarma zuen. Militantzia instituzionala ere bazen; instituzioak sortzeko zeuden: telebista, irratia, geroago herri komunikabideak, egunkaria... Orain halako militantziarik ba al da? Gazte baten buruan zerbait klik egiten ez badu zer? Arrakalak, krak-ak asko dira eta motibazioak gutxi.

ko. Badakigu zer den hizkuntza maitatzea, zaintzea. Euskarak hedapena baino iraupena izan du amets. Erresistentziaren, porrotaren, liseriketaren ondarea jaso du euskal komunitateak. Galtzaileak min dutenei ez die zanpatzaileak edo hedatzaileak bezala begiratzen. Ume beltzak euskaraz egiten duenean euskaldunak sentitzen duena eta gaztelaniaz egiten duenean erdaldunak sentitzen duena, ez dira gauza bera.

Dena dela, ez gaitezen inozoak izan. Migratzaileekiko, ez gara anfitrioi etxeko salan, gure etxean gazte-

Ume beltzak euskaraz
egiten duenean euskaldunak
sentitzen duena eta
gaztelaniaz egiten duenean
erdaldunak sentitzen
duena, ez dira gauza bera

lania da nagusi. Gu ez gara ez nagusi, ez zerbitzari. Nola kudeatu orduan migrazioak dakarkiguna? Eleaniztasunaz hitz egin dezakegu, baina ez gaude Londresen ezta Parisen ere. Aniztasun berriaren aurrean bi begiratu daude: bizi kinkan dagoen hizkuntzarena eta hegemonia duten hizkuntzena. Azken horiek hitz egin dezakete eleaniztasunaz, kulturartekotasunaz eta akademikoek teorizatu egin behar dute horri buruz. Alabaina, gutxi daukagu hortik ikasteko, haiek bizirauteko gramatikaren beharrik ez dute, guk bai. ■